

Hamazazpi

2013 ko Udaberria



Ayuntamiento de Zigoitia
Zigoitiko Udala

_ I GOIKO FEST

_ FÉLIX PLACER

_ ARTEKALE EGUNA

_ TXIRRINDULARI BILA

_ BENGOLARRAKO HARIZTIA

_ UDABERRIA LIBURUTEGIAN

_ UR-ARAZTEGIA _ MURUKO ZULOA

Hasteko...

**04 Goiko Fest**

Maiatzaren 25ean Javier Goikoetxea Goikoren omenez

Liburutegitik, maitasunez

**12 Nobedadeak**

Udaberria heldu da udal liburutegira

Orain eta hemen

**06 Berriak**

- Ur-araztegia
- Udaleko argazki artxiboa
- Muruko zuloa
- Ibilgailuen gaineko zergaren hobaria

Planak

**14 Artekale eguna**

Kale Arteen Jaialdia, ekainaren 14 eta 15ean Zigoitian

**08 Bengolarra**

- Hariztia *sendatzeko* plana

**15 Hartu bizikleta!**

Zuiko Txirrindulari Elkartea, partaide gazteen bila

Elkarrizketa

**10 Félix Placer**

- Etxuengo hobi komunaren deshobiratzeari buruz hitz egiten dugu

Azkena

**16 Batzuk**

- Udal langileen gutuna
- Autobus ordutegiak

Staff

HAMAZAZPI. Zigoitiko Udaleko aldizkaria · 2013ko udaberria

Editatzailea: Zigoitiko Udala_Kultura Saila · Bengolarra, 1 · 01138 ONDATEGI (ARABA) · T_945 46 40 41
www.zigoitikoudala.com · info@zigoitikoudala.com

koordinazioa: Rosa Ortiz de Mendivil · romendivil@hotmail.com.

Diseinua eta maketazioa: Hirudesign Web Estudio S.L. · www.hirudesign.com

Imprimaketa: Gráficas Irudi · www.graficasirudi.es · **Alekopurua:** 1.020 ale · **Lege-gordailua:** VI-67/08
Aldizkari honetako testuak edota argazkiak kopia zuzenean, editatzaileari baimena eskatu behar da.

Hamazazpi udal aldizkari ale berri hau zuzenketa batekin hasi nahi dugu. Aurreko zenbakiko editorialari dagokio, hain zuzen. Asmoa zen lan talde osoak sinatuta agertzea, ez Alkateak soilik. Ez zen gobernu koalizio taldearen izen politikoa agertu behar, eta horregatik barkamena eskatzen dugu.

Udaberria heldu da eta hiruhileko berri hau ekitaldiz josita dago. *Goiko Fest* eta *Artekale*-z gain, aldizkari aipatzen ditugunak, Ondategiko ohiko Zaldiaren Azoka ekaineko azken igandean izango da. Lehenago, maiatzaren 11n, larunbatean, Zaitetik Gaztelua zegoen tokian mugari bat kokatu da, Nafarroako Erreinuaren mugak gogorarazteko ekimen batean. Festa txiki bat ospatu da. Gainera, Zaitetik eta Letonatetik

gazteluraino daraman ibilbide bat argitaratu da euskaldunon lehenengo estatuaren mugen gaztelu guztiak birpasatzen dituen bilduma bateko lehenengo liburuan.

Era berean, aldizkari honetako aurreko alean aipatutako *Zigoitiko Nordic Walking gunea* ekainaren 18an estreinatuko dugu. Udaltzeko aparkalekuan kartela jarrita dago eta planoak Zigoitiko Zentro Soziokulturalean, Udaletxean eta Bengolarrako tabernan dauzkazue. Koadrilako taberna, jatetxe eta hotel guztietan ere, guztion eskura izango dira. Inagurazio egunean bertan, hastapen ikastaroa ere emango da (20 lagunentzako, askoz jota). Eta hortik aurrera, Bengolarran makilak alokagai izango dira.

2013ko Zerga-ordaintzailearen egutegia

IGERILEKUAK**Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko epea:**

Aurreko urteetan abonatuak, bainu-denboraldia hastean. Abonatu berriek, alta ematerako unean bertan.

LANDA- ETA KALE-ONDASUN HIGIEZINEN ZERGA**Borondatez kobratzeko epea:**
2013-05-01 _ 2013-06-30**Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko epea:**

Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko epea: Ekainaren hasieran (Zatikapen posiblea, % 50 ekainaren hasieran eta % 50 azaroaren hasieran). 200 euro baino gehiagoko zenbatekoak.

ZATIKA ordaintzeko eskaera Udaletxean eta web orrian eskuragarri egongo da, apirilaren 1etik maiatzaren 31ra arte.**UDALEKUAK****Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko epea:**

Udalekuaren hasieran.

ORDAINTZEKO LEKUA ETA MODUA**INFORMAZIOA, ZERBITZUAK ETA KUDEAKETAK**

Udaletxea. Telefonoa: 945 46 40 41. Astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara. Faxe: 945 46 40 52, e-mail: azigoitia.registrogeneral@ayto.alava.net

Finantza-erakundeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Ordaintzeko lekuak: Vital Kutxaren eta Euskadiko Kutxaren bulegoetan. Internet bidez, web orri honetan: www.zigoitikoudala.org (Nire ordainketa).

Finantza-erakundeetan helbideratutako ordainketak:

Zigoitiko Udalak zuzenean kudeatuko du ordainketa, helbideratu den finantza-erakundearen kontuan.

MAIATZAREN 25EAN
ETA GOIKO, JAVIER
GOIKOETXEAREN OMENEZ

ZIGOITIA I.GOIKO FEST JAIALDIAREN ALDE

info gehiagorako: www.goikofest.com

GOIKO FEST ez da nolanhiko jaialdia. Ondo begiratuta, esan genezake ez dela jaialdi-jaialdia. Omenaldia, ekitaldi solidariora eta jai da, edo hobeto esanda, izango da. Antolatzaileen arabera, ideia *Betagarri* taldeko kideek sortu zuten, *Goiko* eta Henarren lagun minak direlako. 'Goikoren heriotza tristearen ondoren, Henar eta bere bi seme-alabei ekonomikoki laguntzeko eta aldi berean omenaldia egiteko asmoz, *Betagarri* doako kontzertua egiteko proposamena egin zigun' kontatu digute. Baina *Goiko* Zigoitian guztiak ezaguturiko eta hain maitatutako persona izanda, proiektua elur-bola bat bezala hazten joan zen. Eta horrela, hilabete batzuren ondoren eta udalerriko bizilagun eta elkarte askoren lanari esker, egun programa benetan erakargarria prest dago, adina eta mota guztietako pertsonentzako jardueraz osatua. *Goikok* nahi izango zukeen bezala. Maiatzaren 25ean, goizean, haur jolasak, herri

kirolen haurren txapelketa eta baserritar eta artisauen merkatua izango dira *Bengolarra* Parkean. Bazkalostean, tailerrak, puzgarriak eta arratsaldea girotzeko batukada bat.

Ekitaldi nagusia

Gauean ekitaldi nagusia ailegatuko da: musika jaialdia *Betagarri*, *Riot Propaganda* (*Los Chikos del Maíz* eta *Habeas Corpus* taldeen arteko elkarlana), *Vendetta*, *Eskean Kristö* eta *Dj Bull* taldeekin. Jaialdiaren musika maila nabarmentzeaz gain, artisten elkartasun keinua ere azpimarratzekoa da. *Betagarri* dohainik jokatu du eta gainotzekoek euren prezioak merkatu dituzte. Zigoitiko Udalak eta udalerriko 15 enpresa baino gehiagok ere lagundu nahi izan dute beren baliabideak *GOIKO FEST* -aren zerbitzura jarritz. Horrek guztiak festibalak berak finantziatzea posiblea egingo du.



ZURETZAT, GOIKO! ZURE
HUTSUNEA SENTITZEN DUGU!
Iñigo Rodrigo Estéban.

Joan den azaroan Javier Goikoetxea, *Goiko*, joan zitzaigun gaixotasun luze eta neketsu baten ondoren. Bera joateak bihotz askotan hutsune bat utzi zuen, bere neska-lagun Henarrek esan zidan bezala 'aingeru bat joan da' eta. Eta sinetsidazue, deskribapen hori motz geratzen da *Javi* laguna deskribatzeko. *Goiko* ezagutu bezain laster maitatzen uzten diren pertsona horietako bat zen. Bere ontasunak, bere poztasunak, bizi tzeko grinak eta bere izaera adeitsuak osatzen zuten bere nortasuna... oso oso pertsona berezia zen. Artista bat zen: olerkaria, margolaria, eskultorea, baina batez ere seme ona, lagun hobea eta aita aparta. *Goiko Fest*-a bere familiarekin bizileku zuen udalerriko jendearen ekimenez jaio da. Lur honetan, hain zorionsua izan zen lur honetan, *Goikoren* arrastoa betirako geratuko da. Musikazale amorratua, korridoak edo Errumania bezain herri urrunetako musika herrikoiekin gozatzen zuen. Ziur dagoen tokian *Betagarriko* Iñaki bere laguna entzuten duenean gozatu egingo duela eta ziur dantzan hasiko dela, irribartsu, beti zegoen bezala. Txoko txiki honetatik ezin zen *Goikoren* omenaldi txiki hau falta eta, bide batez, ahal den neurrian jaialdia hau zabaldu. Gertuko jaialdia, txikia, baina ilusio guztiarekin egina; Javierrek egiten zuen guztian jartzen zuen ilusio bera. Zuretzat, *Goiko*. Zure hutsunea sentitzen dugu.



I GOIKO FEST PROGRAMA

Maiatzaren 25an_Zigoitia_IZABAL EZAZU!

11:30 -14:30 h. PUZGARRIAK

11:30 h. HERRI KIROLAK

12:00 -14:30 h. MERKATUA

12:30 h. PETANCA (umeak eta helduak)

13:30 h. PINTXO POTE

13:30 h. MAGOA

17:00 -19:00 h. PUZGARRIAK

17:00 -19:00 h. TAILERRAK

17:00 - 20:00 h. BATUKADA

20:00 h. Musika jaialdia: BETAGARRI, RIOT PROPAGANDA (Los Chikos del Maíz + Habeas Corpus), VENDETTA, ESKEAN KRISTÖ ETA DJ BULL

Sarrerak: 10 € aurrez / 14 € internet eta jaialdian bertan Salgai Bengolarra tabernan (Ondategin), La Sierra, Areatza eta Garraxi tabernetan (Gasteizen). **Interneten:** www.kulturalive.com

Autobusa Gasteiztik: 2€. Arratsadeko 19:00etan aterako dira Europa Jauregiaren aurretik (Gasteiz etorbidea) Zigoitira. Bueltatzeke bi aukera daude, 02:30etan eta 05:00etan. Ticketa erosteko unean aukeratu beharko da bueltatzeko ordua.

Hamaika gorabeheraren ondoren, obra 2014ko hasieran ekin liteke

Gopegi-Ondategiko ur araztegia aspalditik egin nahi den proiektua izan arren, orain arte ez da martxan jartzea lortu. Hasiera batean, bai proiektuaren idazketa bai gauzatzea, Aldundiko Ur Zerbitzuaren mendearen zeuden, eta hasierako proiektu bat bazegoen, Ur Zerbitzuak idatzia. 2011ko maiatzean, Ingurumen Sailak Arabako Lanak elkarte publikoari proiektuaren idazketa eta Hondakin Uren Araztegia (HUA) eraikitzea agindu zion, 1,5 milioi euro horretarako esleituz. Urte horretako urrian Ingurumen Saileko aurrekontuko murrizketa zela medio, gordetako dirua hurrengo urterako (2012-2013) pasa zen. Geroago, Aldundiko Errepide Zerbitzuak, Iberdrola enpresak, eta batez ere URA Agentziak jarritako baldintzek proiektuaren idazketa geldotu zuten.

2012ko abenduan, Arabako Biltzar Nagusietan Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuak egindako adierazpenak kontuan hartuta, prentsan argitaratu zirenak, eta 'lanen gelditzea' aipatzen zutenak, berriro ere proiektuaren jarraipena arriskuan ikusi genuen. Azkenik, 2013

Gopegi-Ondategiko ur araztegia



honetako Aldundiko aurrekontua luzatu denez, ur araztegirako diru partidak jarraitzen du, baina beste urte betez atzeratzen da da (2013-2014 aldira).

Oraingoz, Arabako Lanak elkarteak lan egiten jarraitzen du. Arazketa-proiektua URARI aurkeztu zaio eta baita LKS enpresak idatzitako ureztatzeko-ikerketak ere. Azkenik, diputatuak bere garaian iragarritako ikerketa hidrogeologikoa enpresa espezializatu bat ari da idazten.

Nahiz eta gobernu taldearen sentsazioa den aurrekontu faltagatik obra zaildu nahi izan dela, URAk tramitazio hau laster bukatuko balu, Arabako Lanak elkarteak lizitazioa atera ahal izango luke eta lana urte honetan bertan esleitu. Horrela, 2014ko hasieran ur araztegiaren lanak hasiko lirateke, aldaketa gehiagorik izan ezean. Dena den, Zigoitiko Udalak proiektuaren alde lan egiten eta informatzen jarraituko du.

Udaleko Argazki Artxiboa

Zigoitiko argazkirik al duzu? Zure herrikoak, jaietakoak, auzokideenak, gertakizunen batekoak...? Konpartitu eta baldintza onenetan mantentzea nahi zenuke? Orain posiblea da. Hainbat Administrazio Batzarrek egin duten bezala, Udalak ere Argazki Artxiboa sortu nahi du. Proiektuan parte hartu nahi baduzu, udal-bulegoetara jo (T_945 46 40 41) eta jarri harremanetan Hodei Lopez de Arkauterekin. Gaur egungo argazkiak eta material historikoa jasotzen ari gara. Asmoa da Zigoitiko memoria kolektiboa irudietan jasotzea.



Muruko harrobietarako bidean

Iragarritako zulo baten kronika

Aldundiko Mendi Zerbitzuak behin-behineko konponketa egingo du

Joan den abenduan Muruko harrobietarako bidean, Gorbeia urtegiaren parean, zulo bat agertu zen. Ingurunea aspalditik kalteak jasaten ari zen eta hainbat alditan konpondua izan da, Gorbeia Parke Naturaleko Patronatoak azkena. Berria ezagutu bezain laster, Zigoitiko Udalak harremanetan jarri zen Arabako Foru Aldundiarekin, Gasteizko Udalarekin eta AMVISArekin, ezbeharraren jatorria bere urtegiaren ur iragazpenak sortu balu, konponbidea jartzeko. Herri Lan eta Garraio Saileko foru diputatuarekin bilduta, bere laguntza eskatu zen, nahiz eta errepidea foru-kompetentzia ez izan; lanen finantzaketarekin ezin bazen, behintzat zergatien informarekin eta konponketaren proiektu eta balioztatzearekin. Eskaera horren emaitza gisa, txosten labur bat aurkeztu zuten, zuloa haitzulo bateko sabaiko hausturagatik gertatu zela adieraziz. Udal gobernu talde honen iritziz, txostena ez da zuzena; apurketa ez da bat-batekoa, lehen ere gertatu da. Balorazio horren beraren arabera, jatorria lurpeko urek eragindako oinarritzko materialen higaduran egon daiteke.

300.000 €ko konponketa

Denbora tarte honetan Gorbeia Parke Naturaleko Patronatoarekin ere hitz egin da, bidea parkearen barruan dagoelako eta gainera aisi zonalderako sarbidea delako. Bere erantzuna izan da aurrekontua txikiagotu dela, eta konpontzeko dirurik ez dagoela (Ingurumeneko diputatuaren ustez, lanak 300.000 €-ko kostua izan dezake).



Udaletik ere kontsultatu da Aldundiko Mendi Zerbitzuarekin, eta erantzuna izan da lana ezin duela bere kargu hartu. Hala ere, Zerbitzuak jakinarazi berri digu behin-behineko konponketan kolaboratuko duela, behintzat egur sorten esleipendunak eta abeltzainak Gorbeia igo ahal izateko.

Ibilgailuen gaineko zergaren hobaria

Zigoitiko Udalak, ingurune zaintzearen aldeko apustuaren barruan, Ibilgailuen Gaineko Zerga Ordenantzaren aldaketa onartu du. Gutxiago kutsatzen duten energiak erabiltzen dituzten ibilgailuen erabilera saritu nahi du. Horretarako zergaren kuota osoaren %75eko hobaria ezartzen da ibilgailu hibridoak jabeentzat (motor elektriko-gasolinadunak, elektriko-dieseldunak edo elektriko-gasunak) eta %95eko hobaria ibilgailu elektrikoak jabeentzat. Ordenantza osoa eskura dago <http://goo.gl/fjyRD> web orrialdean.

Igerilekuen irekiera

Datorren ekainaren 15ean, larunbatean, irekiko dira udal igerilekuak. Denboraldia, irailaren 15tera arte luzatuko da.

Bengolarra sendatzeko plana

- Haurreskolako lanek eta parkearen erabilerak zuhaitzak kaltetu dituzte
- Haritzak berreskuratzeko inausketak eta mulch ekarpena behar izango dira



Bengolarrako haritzak *gaixorik* daude. Horrela dio, Zigoitiko Udalak aginduta, Arbolinnova enpresak egin duen txostenak. Enpresaren arduradunak, Samuel Álvarez baso-ingeniari eta arboristak, kontatu digu arazoa aleen bizitasunik eza dela. 'Begiratu batean erraz ikusten da adar lehorrak agertzen hasi direla, hostoen dentsitate baxua, kimu gutxi ateratzen direla, udazkeneko ezohiko koloratzea...'

Arrazoi bat baino gehiago dago arbolen osasun delikatuaz azaltzeko. 'Lehenik eta behin, haritzen berezko garapen fasea kontuan hartu behar da, heldutasun etapa igarotzen ari direlako. Jarraitzeko, parkearen erabilera eta ezaugarriak: hainbat pista igarotzen dira hortik eta makineria astuna pasatzeko tokia izan da. Gainera maila freatikoa (lurpeko lehen urgeruza) nahiko altua da eta urpean gelditzen den gunea da, beraz lurzoru gutxiago dago eta sustraientzako oxigeno gutxiago. Azkenik, haurreskolako lanek larriki kaltetu dituzte haritzak' azaldu digu Samuelek. Teknikariaren arabera, minduenak haurreskolatik hurbilen daudenak dira. 'Zuhaitz helduen ahultze eta

heriotzaren zergatiaren % 85 lurzorian dago, eta kasu gehienetan eraikuntza lanen ondorio dira'. Txostenak egiaztatu duen bezala, haritz hauek sustrai-sistemaren zati bat galdu dute zerbitzu desberdinak kanalizatzeko irekitako zangengatik.

Lurzoruaren degradazioa

Lurzoruak ere degradazio garrantzitsua jasan du, bai zolaketagatik bai makineria astunek sortutako trinkotzeagatik eta lan-materiala pilatzeagatik. Honek guztiak lurzoruak harrotasuna galtzea eragiten du eta oxigeno murrizketa dakar.

Arbolen morfologia ikertzeaz gain, dokumentu teknikoak analisi fitosanitarioa eta biomekanikoa (adarretakoa) jaso ditu. Lehenak datu positiboak dauzka, ez duelako izurriterik ezta onddorik aurkitu. Bigarrenak, ostera, arriskua aipatzen du. 'Adarrek ez dute azpian daudenentzako kalterik eragingo, baina egokia litzateke adar arriskutsuenak, lehorrak edo ahulduta daudenak kentzea, hausturak saihesteko', gehitu du arboristak.



Mulch ekarpena

Haritziko osasuna berreskuratzeko, txostenak segurtasun-inausketa egitea proposatzen du eta, aldi berean, lubakitze inausketa (adarrak altuenak moztea baliabideak biltzeko eta hobeto aprobetxatzeko). Era berean, planteatzen du zuhaitz eta inguruaren bizitasuna handitzea teknika berri baten bitartez: *mulch* ekarpena, erdi deskonposatutako zuhaitz sendo eta osasuntsuen inausketatik sortzen den materia organikoa, alegia. Makineria bereziaren bitartez, arboletako koparen azpian dagoen lurzorua altxatzen da -zatika eta zehaztutako teknika batekin-, sustraiaren parte bat kanpoan geratuz. 'Horrela sustraiak ikuskatzea posiblea da eta baita *mulch*-a eraginkorragoa den


tokian jartzea ere. Baso naturaletako materia organikoaren baldintzak kopiatzen saiatzen da. Gainera, lurra altxatzerakoan destrinkotzea sortzen da eta minututako lurzoru horretan oxigenoa sartzen da, zehaztu du teknikariak. Lan horiek egiteko garai onena udazken/negua da, sistema erradikularra (sustraiak) hazten denean eta euriteek *mulch*-a aktibatzen laguntzen dutenean. Berreskurapen lanak amaitzeko, zaharbertzearen ondorengo bi urteetan haritzak sakontasunez ureztatu beharko liriteke urtean behin. Zigoitiko Udalak sendatze lanak aurrera eramateko 7.865 € erreserbatu ditu 2013ko aurrekontuetan. Aurrekontu-sail hori onartzen bada, urte honetan hasiko liriteke lanak.



Zuhaitzetako Erregea

Haritza bizitza luzeenetakoa duen zuhaitzetako bat da, eta oso oparoa gure basoetan. Espezie nagusia ohiko haritza da, QUERCUS ROBUR. Baldintza onenetan, 40 metroko altuera eta 900 urte izatera heldu daiteke: 300 urte gaztaro-nerabezaro fasean, 300 heldutasunean (Bengolarrako arbola bezalakoak) eta 300 seneszentziako fasean. Duela ez hainbeste, haritzak Europako zati handi bat betetzen zuen, Atlantikotik Ural Mendileroraino. Baina betetzen zituen lurren ustiapenak, bai belardi bai laborantza lur bihurtuz, asko murriztu dute haritz-populazioa gure ingurunean. Horregatik da hain garrantzitsua bere kontserbazioa.

Félix Placer, Zigoitiko apaiza eta Etxaguengo hobi komunaren deshobiraketaren bultzatzailea



Félix Placer Zigoitiko iparraldeko 8 herritako parrokoa izan da 20 urtetan zehar. Orain erretiratuta dago baina udalerrarekin oso lotuta jarraitzen du 'adiskidetasun-arrazoiak' direla medio. Akelarrea aldizkari etnografikoko eta Abadelaueta talde etnografikoko kolaboratzailea, Euskal Herrian orain arte aurkitutako hobi komun handienaren deshobiraketaren bultzatzailea izan da. Apirilaren 4an ekitaldi instituzionala burutu zen Marisol Hernando, Etxaguengo Administrazio-Batzarreko Presidentearekin eta Mikel Las Heras, Zigoitiko Alkatearekin. Haien ondoan egon ziren Eusko Jaurlaritzako ordezkariak eta Aranzadi Zientzia Elkartekoak, Francisco Etxeberria auzitegi-medikua buru zela. Eta guztien artean, Félix Placer. Azken egun hauetan Zigoitiko bere lagunek prentsan, irratan eta telebistan ikusi dute, Etxaguen mapan jarri duen berriaz hitz eginez.

'Hau gertatu behar izan ez zen pasarte oso mingarri bat da, baina ahaztu behar ez duguna'

Espero zenuen sortu den zalaparta?

Ez genuen uste hainbeste eragin izango zuenik. Nire buruari galdetzen diot zergatia. Eta uste dut jendea egia historikoa jakin dadin benetan interesatuta dagoelako izan dela. Lan nekeza izan da, zaila, baina gure nortasuna ezagutzeko eta pasa dena jakiteko dugun beharra frogatzen du. Hau gertatu behar izan ez zen pasarte oso mingarri bat da, baina ahaztu behar ez duguna.

Nola hasi zen kontua?

Hemen parrokoa izan naizen 20 urteetan guztiekin bizi izan naiz. Erlazio horretan oroitzen ugari ateratzen joan dira, asko garai hartako lekuko izan ziren pertsona zaharrenak. Diskrezio askorekin hitz egin izan didate beti, oso gertaera mingarriak izan zirelako eta bi bandoetako pertsonak zeudelako: Euskal Herriaren defentsan ibilitako kideak eta altxamendua eragin zuen bandokoak. Zaharrenek zioten: 'hobi bat dago hemen, hortik sakabanatutako gorpu batzuk...'. Lehenengo kontaktu formalak Ramón Otxoa de Etxaguen (gaur egun hilik dagoena) eta Julián del Hoyok izan zituzten Aranzadi Elkartarekin. Ramón-ek Aranzadiko kide

bati erakutsi zion non zeuden gorpuak. Horrez gain, garaiko zuzeneko lekuko bat bizi da egun, 94 urteko San Pedroko bizilaguna, José Beobide, hilotzen garraioan parte hartu zuena. José-k kontatzen zigun gogorrena idi-orgetan zerraldoak kargatzea eta hobi komunetara eramatea zela... Informazio hauekin, ikertzen jarraitu genuen. Oso era zuhurrean. Inork gorputzak eskatzen zituen ikusteko denbora bat itxaron genuen, baina oraingoan gertatu ez denez, Aranzadi gonbidatu nuen behin betiko prospekzioa egitera, beti Etxaguengo herriaren onespenez.

Hobia irekitzerakoan, zer aurkitu zen?

Antzemandako 11 gorpuetatik, hobotik 9 atera ahal izan dira. Ahuspez lerrokatuta ageri ziren, katolikoak ez izateagatik zigor gisa. Etxeberriaren lehen kalkuluen arabera, gutxienez baten bat 20 eta 25 urte bitarteko gaztea zen. Ekintza instituzionalaren hurrengo egunean, gorpuzkiak kutxetan jarri ziren eta Donostiara eraman zituzten, Aranzadiko laborategira, analisisiei ekiteko, identifikatzen saiatzeko asmoarekin. Fase hau amaitzen denean berriro ekarriko dira Etxaguenera, hilerrira. Bertan, herriaren akordioz, duintasunez hartuko dute atsedean eta plaka bat jarriko dugu haien oroimenez.

Hobi komun gehiago daude?

Herritarren lekukotasunengatik eta oroitzenengatik badakigu beste hobi bat behintzat badagoela, 20-30 gorpurekin; gaur hilerrira barruan daude, duela urte batzuk egindako handitze lanengatik. Herria ados badago, indusketa egingo da, berreskuratzen saiatzeko. Ikertzen jarraitu behar dugu justiziagatik, duintasunagatik eta askatasunaren alde borroka egin zutenen aitorenengatik.

Zergatik Etxaguen?

1936ko azaroaren 30ean hasi zen Villarreal-eko Bataila, hainbat hilabete geroago 1.500 hildako eta milaka zauriturekin bukatuko zena. Euskal armadak, Errepublikaren zerbitzura, Legutio erasotu zuen. Herria, altxatutako nazionalak hartuta zegoen, zeintzuek bataila eta guda osoa irabaziko baitzuten. Zona hau fronteko oso zati garrantzitsua izan zen, Nafarratetik, Eribe, Elosu, Zestafe, Okoizta, Etxaguenera... Nafarrate eta

Herriaz hitz egiten duzu etengabe. Zergatik?

Izan ere hau herriarena da, Zigoitiko historiaren atala! Eta dena bere baimenarekin egin da. Administrazio-Batzararen Presidenteak, Marisol Hernandok, batzar batean planteatu zuen, eta deshobiraketekin eta hilerrira lekualdatzearekin ados zeuden galdetu zuen. Etxaguengo herritarrek aho batez onartu zuten. Eta prozesu osoan zehar hor egon dira.

Eta zu, zergatik ardura zara?

Lehenik eta behin, gizatasunagatik. Ahaztutako duintasuna berreskuratzeke, izengabeena, izenik gabeko hobi komun batean lurperatutako pertsonak; zentzugabeko gerra batean hil ziren gazteak, batzuk bortxaz joatera behartuak. Memoria berreskuratzeak egia irteteko balio du, beldurrik gabe, era objektiboan. Ez da mendeku grinez egin behar, baizik eta egia ezagutarazteko, aitorpenerako; adiskidetze gogotik, nire ustez. Nik uste dut hau mundu desberdin bat egiteko gonbidapena dela, zeinean jendea bere duintasuna itzul dakioken eta norberak bere ideien alde borroka egin dezakeen, guztiok errespetatuz. Arrazoi pertsonalek ere mugiarazi naute; nire familian, beste askotan bezala, asko sufritu zen.

Ikusitakoak ikusita, zerekin geratzen zara?

Nire ustez, zauriak sendatzeko modu bat iragana objetibitatez gogoratzea da. Niretzat oso baliogarria da hori. Ingurune honetan historia hura gogoratzen den soseguak atentzioa deitu dit. Badakit beste leku batzuetan ez dela horrela izan, baina Zigoitiko jendeak erakutsi du nola gogoratu iragana gorrotorik gabe, baina memoria historikoa berreskuratzeke asmoz, bizirik irauteke asmoz, hainbestu sufritu dutenei justizia egiteko.



Udaberria heldu da Zigoitiko liburutegira

Udazkeneko apalategi lehorrak kimu samur eta gozoz beterik daude orain

Testua eta argazkiak: **J. Arbulu.**

Erik Satie musikagileak bere *Amnesiko baten memoriak* liburuan zioen oso gazte jaiozela oso mundu zaharrean. Nonbaiten ere konparatu ditugu gure liburutegiaren hasierak *Platonek Banketea* narrazioan kontatzen zuen *Eros*-en (Maitasunaren) jaiotzaren bertsioarekin. Pobreziaren (*Penia*-ren) eta ondasunaren (*Poros*-en) semea, *Eros* (maitasuna) beti dago behartsu eta, aldi berean, beti oparotasunean. Ez badut gaizki gogoratzen, abenduan izan zen, Liburutegiko Lehenengo Jardunaldietan. Ez da hainbeste denbora igaro eta, hala ere, badirudi eternitatea pasa dela jadanik. Egun haietan Arturo Goicoechea eta bere taldea, Hedoi Etxarte, Rubén Ángel Arias eta Sonia Estévez, entzuteko aukera izan genuen. (Kontuan har itzazue, zer esana emango dute).

Oso zaila da espazio honetan lazken hilabete hauetan gertatu izan den guztia laburbiltzea. Horregatik, artikulu hauen bidez saiatuko



naiz, lehenik eta behin, eskerrak ematen gure proiektuan euren ahaleginak eta maitasuna jarri duten guztiei. Egia esan, ez gara mirarigilerik, baina azaroan bat eskatzera animatu ginen: gure liburutegiko apalategi lehorretatik ahalik eta orri gehien sortu zedila, kimu samur eta gozoz beterik. Udaberri bat udazkenaren erdian. Ba begira, miraria bete da. Zuek posible egin duzue. Eta orain zer?



Proiektu berriak

Oraingoz aukeraketa lanek eta katalogazioak gure denbora eta indar gehienak bereganatzen dituzte. Hala ere, barealdia heltzen denerako ideia batzuk bururatu zaizkigu. Azken aldi honetan, noizbehinka, Eguneko Arretarako Landa Zentroko aiton-amonak gonbidatzen ditugu liburutegira igotzera. Hemen ipuin bat irakurtzen dugu eta guztion artean komentatzen dugu. Oso ekintza polita eta gainera ezusteko opari bat ekarri digu: gure aiton-amonetako bat irakurle ausart eta asegaitz bihurtu da. Berak ere gehiago nahi du.

Bestalde, irakurketa tailer bat sortzea pentsatu dugu; liburu baten irakurketa elkarren artean hausnartzeko tokia, hain zuzen.

Bukatzeko, gogorazi nahi nizueke liburutegiko txartela egitera etor zaitzeketeela (dotorezia dakar eta doakoa da); liburutegi arteko mailegu barruan gaudela (hau da, sareko liburutegietatik -120 baino gehiago daude- behar dituzuen liburuak hona ekar ditzakegula); Eusko Jaurlaritzako eta Udaleko diru-laguntzari esker liburu berriak erosten ditugula... Gauza hauek guztiak zain dituzue, eta gu geu ere.

Eznuke aguresan nahi Henar, Bixent eta Peru-ri besarkada handi bat bidali gabe. Gora Goiko! Eta Gora Goikofest! Bertan ikusiko dugu elkar.

Kontuak eta kontaktak

Diru-kontuak hain presente ditugun bolada honetan, zifra batzuk batzuk eman nitzake: 5.000 liburu inguru jaso ditugu, katalogatutako 700 liburu, 800 mailegu, 70 bazkide berri, 15 liburutegi arteko mailegu... Herri administrazioan kontaktak argi egon behar dira eta nahi dituenaren eskura, iruzurra eta boterearen aurka gure defentsa bakarra direlako. Hala ere, ondo baino hobeto dakizueenez, zenbakiak ez dira beti fidatzekoak. Batzuetan, bai zenbakiak bai beren *arrea* txikiak, estatistikek, ez dute kontatzen historia borobila. Ikuspuntu narratibo batetik esan genezake zenbakiak ez direla beti kontalari fidagarriak. Horregatik, bihotzez esan nahi genuke ez garela horrekin konformatzen eta gehiago nahi dugula. Hemen ikusi nahi zaituztegu, kontu atseginak kontatzeko grina dugula eta ez, hain zuzen, hitz hutsak.

ARTEKALE EGUNA

zirku,
clown eta
txotxongilo
beteriko jaia

. Kale Arteen jaialdia da
. Ekainaren 14 eta 15ean ospatuko da



Jon Zabal magoa.

ArteKale Eguna antzerki, zirku, clown, txotxongilo eta malabarez osaturiko nahaste-borraste ederra da. Ekainaren 14an, ostirala, arratsaldean, eta 15ean, larunbat osoan zehar, ikusgai izango da Zigoitian. 2013. urtean bigarren edizioa ospatzen duen kale antzerki jaialdia da, era guztietako jendeari zuzendua. Iaz Otxandion egin zen, arrakasta osoz, eta aurten Zigoitiara helduko da. Hautaketa ez da ustekabekoa izan. Duela 4 urtetik *Bidearte Eszena Zigoitia* proiektu artistikoa martxan dago, *Panta Rhei* taldeak zuzenduta eta Udalak lagunduta.

Uda heltzeaz izango den horretan, *Artekale Egunak De Bote en Bote, Gaitzerdi, Pez Limbo, Jon Zabal El Sainete Konpainia, Salitre* eta *Panta Rhei* taldeen azken antzezlanak ekarriko dizkigu. Eta baita *Ane Miren* eta *Contac* kontorsionistarenak ere. Une hauetan programazioa zehazten ari da, baina jaialdia izan baina egun batzuk lehenago informazio guztia (ordutegiak, antzetzokiak, etab.) HAMA ZAZPIko facebook berrian argitaratuko dugu.

www.facebook.com/hamazazpialdizkaria

2012an jaio zen *Artekale Eguna*, KaleArteetako erakusle-irratietako asmoz eta Artekale elkartearen bazkideen arteko topagune izateko (elkartea konpainia artistikoen, programatzaileen eta administrazio publikoaren osatzen dute).

+ Info gehiagorako:

www.artekale.org
www.facebook.com/hamazazpialdizkaria
www.bidearteszena-zigoitia.info

2 gurpilen gainean ondo pasatzeko neska-mutilak bilatzen dira

Zuiako Txirrindulari
Elkartean galdetu

Asteartero, arratsaldeko 19:15etan, Murgiako Udal plaza bizikletazale gazteen topagune bihurtzen da. Topaketa *Zuiako Txirrindulari Elkarteak* antolatzen du, 1971an sorturiko kluba da eta ordutik hona Zuiako bailaratik pedalei eragiten darama. Orain inguruko udalerrieengana ailegatu nahi du, ume eta gazteei txirrindularitzako grina sartu nahian. Txirrindularitza oso kirol samurra izanda, dena daukala diote Zuiarrek: erresistentzia handitzen du, abiadura eta bizkortasuna bultzatzen ditu, eta koordinazioa eta oreka suspertzen ditu. Gainera, ohitura osasungarriak sortzen ditu: artikulazioak, zirkulazio-sistema eta arnasketa gaitasuna hobetzen ditu, gizentasunari aurre egiten dio eta bizkarreko minak ekiditen ditu. Maila psikologikoan, antsietatea eta estresa txikiagotzen ditu, aldartea hobetzen du, autoestimua handitu eta garapen intelektualari laguntzen dio. Taldeko kirola denez, besteekin elkartzea bultzatzen du eta, gutxi balitz, bizikleta batera igotzeak kontzientzia ekologikoa sortzen laguntzen du eta gure ingurune pribilegiatuaz gozatzea errazten du.

Entrenamendu libreak

Sinetsi baino, hobe da hara joan eta probatzea. Astearteetako entrenamenduak libreak dira. Interesatu guztientzat irekita daude. Gure aldizkariko irakurle gazte bat animatzen bada, jakin behar du Klubak lasterkariak bilatzen dituela bere 3 taldeentzat: Eskola, Kadeteak eta Jubenilak. Eta apuntatzeko epea, maiatzaren 31ra arte irekita dagoela. Zuiako Koadrilako



neska-mutikoen artean txirrindularitza bultzatzeko, hain zuzen, *Zuiako Txirrindulari Elkarteak* pasa den abenduan tailer batzuk egin zituen. Lehendabizi, Zigoitiko *Gorbeia Eskolan*, eta Murgiako *Los Paules* institutuan gero, Gymkana (trebetasun proba) eta Mountain Bike ibilbide bana egin ziren. *Gorbeia Eskolako* Lehenengo Hezkuntzako 5. eta 6. mailetak 124 neska-mutilek parte hartu zuten. Tailerrak asko gustatu zitzaizkienez, aurten ere egingo dira, ikasleek eskatuta.

Info gehiagorako:

ZUIAKO TXIRRINDULARI ELKARTEA
T_ 607 700 887

ZIGOITIKO UDALEKO XII. SARIA

Ekainaren 30ean, igandea, Zigoitiko linea lasterketa klasikoa izango da. Zuiako Txirrindulari Elkarteak antolatuta, probak junior kategoriako (17-18 urte) ehun txirrindulari baino gehiago bilduko ditu. Ibilbideak 80 kilometro inguru izango ditu eta saiatuko da udalerriko ahalik eta herri gehienetatik pasatzen. Helmuga Gopegin kokatuko da.

Udal-langileen gutuna

Askok ikusi gaituzue pankarta batekin ostegunero, lanerako bidean zuen autoarekin pasatzen zaretenean edo umeak eskolara eramaten dituzuenean... Batzuek gure txistuak eta bozina-hotsak entzun dituzue... Baina askok ez dakizue zer egiten ari garen eta zergatik.

Duela hilabete batzuk Udaleko langile guztiok NEKATUTA geundela erabaki genuen. NEKATUTA sortu ez dugun krisi honen ordaintzaileak izateagatik, bere sortzaileak libre dauden eta etekinak ateratzen dituzten bitartean. NEKATUTA arduradun politikoak, kolorea edozein dela ere, gizarte eskaerak entzun gabe eta eguneroko errealitatetik kanpo bizi daitezten. NEKATUTA jende askoren ahaleginarekin erakitzea 35 urte kostatu den ongizatea, egunez egun desagertzen ikusten dugulako. NEKATUTA gerra ostean zegoen

herrira bueltatu behar izateagatik, non gutxi batzuek eskubide guztiak zituzten, gehiengo batek ezertarako eskubiderik ez zuen bitartean.

Ezin dugu bitiztea tokatu zaigun aro honetako ikusle hutsak izan. Gizartea, gobernatzen gaituzten erakunde publikoak, jokaera-arauak eta etika egunero GUZTION ARTEAN sortzen ditugu. Inork ez du sortzen gure orde. Ezin dugu utzi gure konformismoak geldiaraztea eta borondaterik gabeko txontxongilo bihurtzea.

ASKI dela esan behar dugu!
Horregatik guztiagatik GURE PROTESTARA ETA GORBEIA ESKOLAKO IRAKASLEGOAK EGITEN DUENERA ETORTZEKO GONBIDATZEN ZAITUZTEGU. OSTEGUNERO, 9:15etatik 9:30era, GORBEIA ETORBIDEKO OINEZKOENTZAKO PASAGUNEAREN ONDOAN (GOPEGIN).

Udal langileak

HEZKUNTZA ETA OSASUN PUBLIKOAREN ALDE KALERATZEEI STOP, MURRIZKETARIK EZ.

Autobusen ordutegiak

ETXAGUEN → VITORIA-GASTEIZ 10A LINEA

Autobusaren Oinarria	30'ETXAGUEN	ONKIZA	ETXAGUEN	MURUA	UJUMBUA	MURUA	ZARATE	ONKATZEGO BIDEGURUTZA	EMEE	MURUA	BERBERNO	MURUA	ONKIZA	GORBEIA	VITORIA-GASTEIZ
Larunak	*	*	7:00	7:02	7:04	*	*	*	7:08	7:10	*	7:13	7:18	10:25	10:50
Ostirats	*	*	10:00	10:02	10:04	*	*	*	10:08	10:10	*	10:13	10:18	16:00	16:25
Ardenak	*	*	15:35	15:37	15:39	*	*	*	15:43	15:45	*	15:48	15:53	21:00	21:25
Behar duenak	*	*	20:50	20:52	20:54	*	*	*	20:58	21:00	*	21:03	21:08	21:15	21:40

*Funtziozko zerbitzuak, aldez aurretik aldatuak
Letras beltzez idatzitako indargarritan, ikusleekin zehar bakarrik erabiltzeko zerbitzuak

*Servicio de alojamiento con aviso previo
Las horas en negrita solo se realizan durante curso escolar

VITORIA-GASTEIZ → ETXAGUEN 10A LINEA

Autobusaren Oinarria	VITORIA-GASTEIZ	GORBEIA	MURUA	BERBERNO	MURUA	EMEE	ZARATE	ONKATZEGO BIDEGURUTZA	MURUA	UJUMBUA	MURUA	ETXAGUEN	ONKIZA	30'ETXAGUEN
Larunak	9:00	9:25	9:32	*	*	*	9:42	*	*	9:46	9:48	9:50	*	*
Ostirats	14:45	15:10	15:17	*	*	*	15:27	*	*	15:31	15:33	15:35	*	*
Ardenak	20:00	20:25	20:32	*	*	*	20:42	*	*	20:46	20:48	20:50	*	*

*Funtziozko zerbitzuak, aldez aurretik aldatuak

*Servicio de alojamiento con aviso previo

Hamazazpi

Primavera 2013



Ayuntamiento de Zigoitia
Zigoitiko Udala

I GOIKO FEST

FÉLIX PLACER

ARTEKALE EGUNA

SE BUSCAN CICLISTAS

ROBLEDAL DE BENGOLARRA

PRIMAVERA EN LA BIBLIOTECA

DEPURADORA SOCACÓN DE MURUA

Para abrir boca...

**04 Goiko Fest**

El 25 de Mayo en recuerdo a Javier Goikoetxea, *Goiko*

Está pasando

**06 Noticias**

- Depuradora
- Fondo fotográfico
- Socavón de Murua
- Bonificación impuesto vehículos

**08 Bengolarra**

Plan para *curar* el robledal

La entrevista

**10 Félix Placer**

Charlamos sobre la exhumación de la fosa común de Etxaguen

Desde la biblioteca, con amor

**12 Novedades**

Ya ha llegado la primavera a la biblioteca municipal

Planes

**14 Artekale eguna**

El Festival de las Artes de Calle, el 14 y 15 de Junio en Zigoitia

**15 ¡Súbete a la bici!**

El Club Ciclista Zuiano busca jóvenes aficionados

La última

**16 Varios**

- Carta de los trabajadores municipales
- Horario de autobuses

Staff

HAMAZAZPI. Revista del Ayuntamiento de Zigoitia · Primavera 2013

Edita: Ayuntamiento de Zigoitia_ Departamento de Cultura · Bengolarra, 1 · 01138 ONDATEGI (ARABA)

T_ 945 46 40 41 · www.zigoitikoudala.com · info@zigoitikoudala.com

Coordina: Rosa Ortiz de Mendivil · romendivil@hotmail.com

Maquetación y diseño: Hirudesign Web Estudio S.L · www.hirudesign.com

Impresión: Gráficas Irudi · www.graficasirudi.es · **Tirada:** 1.020 ejemplares · **Depósito legal:** VI-67/08

Para reproducir textos y/o fotografías, es necesaria la autorización previa y por escrito de la editora.

Editorial

Hamazazpi
primavera 2013

Queremos comenzar este nuevo número de la revista Municipal *Hamazazpi* con una rectificación. Nos referimos a la firma del editorial del número anterior. La intención era que no apareciera firmado por el Alcalde personalmente, sino por todo el equipo. No debería haber aparecido el nombre político de la coalición del equipo de gobierno y por eso pedimos disculpas. Ya estamos en primavera y es éste un trimestre cargado de eventos.

Además de *Goiko Fest* y *Artekale*, a los que hacemos referencia a lo largo de esta revista, el último domingo de junio llegará la ya tradicional Feria del Caballo en Ondategi. Días antes, el sábado día 11 de mayo, se colocó un mojón en la ubicación del castillo de Zaitegi dentro de una iniciativa para recordar las fortalezas que defendieron la frontera del Reino de Navarra. Se

hizo una pequeña fiesta. Además, se ha incluido un recorrido al castillo desde Zaitegi y desde Letona en el primer volumen de una serie de publicaciones que incluirán recorridos por todas las fortificaciones de la antigua frontera del primer estado de los vascos.

También el sábado 18 de Mayo inauguraremos el *Centro Nordic Walking de Zigoitia*, del que ya hablamos en el número anterior de esta revista. Ya está colocado el cartel en el aparcamiento del Ayuntamiento y disponéis de los planos de mano, para llevar, en el Centro Sociocultural, el Ayuntamiento y el bar de Bengolarra. Además, se distribuirá en los establecimientos turísticos y hoteleros de toda la comarca. Ese día 18 se dará un cursillo de iniciación a las personas interesadas (máximo 20). A partir de entonces, en Bengolarra se podrán alquilar los bastones.

Calendario del contribuyente 2013

